

Buletineko gaiak:

1. 15 egunez ikastolara etorri gabe
 2. Inauterietako bideoaren deskarga
- Apartekoak

Berri orokorrak

1.- Osasun egoera medio, ikasleak ikastolara ez

Hezkuntza Sailak horrela aginduta, eta bizi dugun osasun egoera medio, gaurtik aurrera, martxoak 13, eta **15 egunez ikasleak ez dira ikastolara etorriko** (eskolaz kanpoko jarduerak barne).

Egoera honek gure ohiko jardun pedagogikoa eten du. Hau honela izanik eta egoera honek zenbat iraungo duen ez dakigunez, zuen seme-alaben mailako jakinarazpenak jasoko dituzue Alexiatik (HH, LH edo DBH). Bertan azalduko dizuegu zer den egun hauetarako proposatzen dizueguna.

Ez ohiko egoera hau guztiontzat erronka bat da, argi dugu osasun larrialdi bat izanik, egokitzea ezinbestekoa dela eta elkarrekin aurrera eramango dugu.

Berri gehiago dugun heinean jakinarazten joango gara eta mesedez adi egon gure sare sozialei, webguneari eta Alexiako jakinarazpenei.

2.- Inauteriak 2020ko bideoaren deskarga

Orain arte, Haurtzaro Ikastolan ospatzen dugun inauterietako jaialdiaren bideoa lortzeko, DVD formatuan egiten genuen. DVD hau erosteko aukera zegoen eta horretarako eskaera egin behar zenuten interesatuta zeundeten familiek. Dagoeneko formatu fisikoak gero eta gutxiago erabiltzen dira eta etxean DVD irakurgailu bat edukitzea ere ez da ohikoena. Teknikoki ere, grabaketa egiten den bereizmenarekin (1080p), bideoa DVD batean sartu ahal izateko kalitatea jaistera derrigortuta geunden. Teknikoak ez diren kontuak ere bagenituen, ezin dugu horrelako bideo bat edozeinek deskargatu ahal izateko moduan jarri, irudien eskubideak direla medio.



Beraz, guzti hau aintzat hartuta eta gaur egun guraso guztiek ikastolako posta duzuela baliatuz, **Inauterietako jaialdiaren bideoa deskargatzeko aukera duzue ondorengo loturan:**
<https://drive.google.com/a/haurtzaro.ikastola.net/file/d/1FPMg7MXX2I60oji3EB4hUiRiSfaFse4r/view?usp=sharing>


OHARRAK:

1. Esan bezala, irudi eskubideak bermatzen ditugula ziurtatzeko, deskargatzeko garaian, norbere ikastolako posta erabiltzea eskatuko dizue (gogoratu: na_zenbakia@haurtzaro.ikastola.eus).
2. Bideoak, 2,7 GB-ko pisua du, eta ondorioz deskarga egiteko garaian kontuan har ezazue (WIFI bidez deskargatzea gomendatzen dizuegu).

Apartekoak

1.- Oiartzungo Udaleku Irekiak 2020

- **Uztailak 1-30:**
 - Lehenengo hamabostaldia: 1-15.
 - Bigarren hamabostaldia: 16-30.
- **Izen-ematea:** martxoaren 23tik apirilaren 3ra.
- **Nola?**
 - Online: <http://www.gazteoiartzun.net/event/udalekutako-izen-ematea/>
 - Mendiburu kaleko 5. zenbakiko bulegoan: astelehenetik ostiralera 08:30etik 11:30era eta 15:00etatik 18:30era.



2.- Bidaia bat baino gehiago: haur errefuxiatu sahararren udako harrera programa

Oporrak Bakean programaren helburua urtero, udako bi hilabeteetan zehar, 10 eta 12 urte bitarteko saharar haur errefuxiatuak familia euskaldunetan hartzea da. Programa hau bidaia bat baino gehiago da. Haur sahararrek basamortutik eta errefuxiatu kanpamentuetatik kanpo pasatzeko aukera da, eta familia euskaldunek Herri Sahararra lagundu eta beste kultura batekin elkarbizitzeko aukera ematen du.



Oporrak bakean udaz uda egia bihurtzeko harrera familia berriak behar dira. Zuk ere proiektuaren parte izan nahi baduzu eta familiako kide berri batekin uda ahaztezin bat pasatu, eman izena programan!

- **Helbide elektronikoa:** sahara_oartzun@hotmail.com
- **Telefono zenbakia:** 605 713 692

3.- Udaleku gehiago

- **Pirata Udalekuak (Urtxintxa).** 6 egun izango dituzte piraten bizimoduan murgiltzeko, ibilbide zirrargarriak ezagutzeko, hondartzara joateko eta ur ekintzak egiteko, Kantauri itsasotik nabigatuko dute piraten abestia kantatuz eta aurtengoan bereziki... 1721: Nassau uhartera bidaia ezagutzeko aukera izango dute. Informazio guztia: <http://www.urtxintxa.eus/zerbitzu-orrialdeak/pirata-udalekuak-2020/>
- **Euskaraz Blai Udalekuak:** Euskarazko udalekuak Arantzan eta Beintza-Labainen (Nafarroa). Jolasak, lagunak, algarak, euskara, etxeko janaria eta giro ezin hobea gure paraje ederrez gozatzeko. Informazio guztia atxikitako dokumentuan eta webgunean: <https://euskarazblaiudalekuak.com/>
- **Udaleku ibiltariak, kontrabandisten bidea:** Bidasoko bailara kontrabandoko pasagune garrantzitsua izan da Euskal Herriko historian zehar, unean uneko beharren arabera, edozein gauza garraiatzen zuten. Eta pasadizo horien testigantza zuzena jasoko dute haur eta gazteek. Informazio gehiago atxikitako dokumentuan eta webgunean: <https://euskarazblaiudalekuak.com/>
- **"Udalekuak" Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundien artean antolatutako programa:** 7tik 13 urtera arteko haurrentzat da, eta bertan parte hartzen dutenek aukera paregabea dute aisiako jarduera hezitzaileez gozatzeko. Honen bitartez, jolaserako, dibertsiorako eta bizikidetasunerako leku bat eskaini nahi diete hurrei, beren gozamenerako eta autonomia pertsonala finkatzeko. Izena emateko epea: martxoaren 16tik 24ra da. Informazio guztia: <https://www.gipuzkoa.eus/udalekuak>.
- **Gazte oporraldiak:** Gipuzkoako 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat da, eta bertan parte hartzen dutenek aukera izaten dute jarduera ludiko-hezigarriez gozatzeko. Programa honen bitartez, dibertsiorako eta bizikidetasunerako leku bat eskaini nahi diete gazteei, beren gozamenerako eta autonomia pertsonala finkatzeko. Izena emateko epea martxoaren 16tik 24ra da. Informazioa: <https://www.gipuzkoa.eus/gazte-oporraldiak>.

